



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Giza Eskubideen 17. Zinemaldian euskal ekoizpeneko hiru estreinaldi, kalitatezko animazioa eta Ozon edo Akhavan bezalako izenak sail ofizialean aurkeztuko dira

34 film labur, 5 erakusketa, errealitate birtuala eta hainbat jarduera apirilaren 5etik 12ra izango dira programazioan

Soinujolearen semea (2018), Fernando Bernuések zuzendua, izango da datorren apirilaren 5ean Victoria Eugenia Antzokian hasiera emango dion filma **Donostiako Giza Eskubideen 17. Zinemaldiari**, Donostiako Giza Eskubideak arloak eta Donostia Kulturak antolatuta.

Gracias a Dios (*Grâce à Dieu*, 2019), François Ozonek zuzendua, izango da apirilaren 12an zinemaldiari amaiera emango dion filma, **Annemarie Jacir** zinegile palestinarrek Zinemaldiaren sari berezia jasoko duen gala batean.

Zinemaldia apirilaren 5etik 12ra izango da Victoria Eugenia –lehiaketaren egoitza nagusia– baita hiriko leku desberdinetan ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren –Bizikidetza eta Giza Eskubideetako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez– eta Eusko Jaurlaritzaren –Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez– babesa jasotzen du zinemaldiak. Eta erakunde hauek ere parte hartzen dute bertan: hainbat GKE, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, CEAR, Unicef, Gehitu, Nazioarteko Amnistia, Acnur, SOS Arrazakeria eta FiSahara.

HELBURUAK

Giza Eskubideen Zinemaldiak hamazazpigarren edizioa betetzen du. Aurten, 68 film proiektatuko dira guztira –34 film luze eta 34 labur–, 32 nazionalitatekoak, eta 5 erakusketa programatu dira.

Bigarren urtez, hurrenez hurren, **Errealitate Birtualaren eta Giza Eskubideen inguruko Erakustaldia** izango da, non hiru egunez hamabi pieza ikusi ahal izango diren. Gainera, kontzertu solidario bat emango da Mendebaldeko Sahararen alde, **Singing Through the Wall / Harresitik abesten**, Club 44-k sustatuta, nazioarteko artistak partaide izango dituena. Gainera, programazioan aurkituko ditugu mahai-inguru bat eta film luzeen emanaldi bat, **REACT – Errespetua eta berdintasuna: elkarrekin ekin eta komunikatzea** proiektukoa, baita tailer bat ere, **Marmara – Zalaparta bihurtzen diren zurrumuruak**, Indiako Corinne Kumar aktibista feministarekin.

Programazio hau solasaldiekin osatzen da; horietan filmen protagonistek, zinegileek eta aztergai diren gai sozialetan aditu direnek parte hartuko dute; eta filmen goizeko emanaldiak ere izango dira ikastetxeentzat.

Zinemaldiak hiriko auzoetan jarraitzen du presentzia izaten, kultur etxeetan ematen diren doako proiektioekin. Aurten, Tabakalerako eskaintza lau emanalditara zabaldu da.

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Zinemaldiaren **helburua** honako hau da: **giza eskubideen defentsaren eta urraketaren hainbat alderdiren inguruko gogoeta, sentsibilizazioa eta eztabaida** bultzatzea, eta justiziarekin eta gizarte-berdintasunarekin konprometitutako herritar aktiboak sustatzen laguntzea.

SARRERAK ETA ABONUAK

Abonu bat dago (**22 €**) Victoria Eugenia Antzokiko emanaldi guztietara joateko eskubidea ematen duena; Internet bidez nahiz Victoria Eugenia Antzokiko leihatilan eskuratu daiteke **ostegunetik, martxoak 28, 11:30etik aurrera**.

Sarrerak egun horretan bertan jarriko dira salgai (**4,50 €**) eta Victoria Eugenia Antzokiko leihatilan eta Internet bidez eskuratu daitezke.

FILM LUZEAK

Aurten, **19 film luze** hartuko dute parte Zinemaldiaren Sail Ofizialean. Munduko alde guztietatik iritsitako filmak dira, eta askotariko gaiak lantzen dituzte. Urtero bezalaxe, mahai-inguruak egingo dira ikusleekin, 19:00eko saioetan. Mahai-inguru horietan, aurkeztutako filmen taldeetako kideek, landutako gaietako espezialistek, erakunde eta GKEen ordezkariak eta abarrek hartuko dute parte.

Emakumeen sexu-autodeterminaziorako eskubidea

1. **#PLACER FEMENINO** (#Female Pleasure, 2018). Barbara Miller. Suitza-Alemania

(Des)gaitasunak dituzten pertsonen hezkuntzarako eskubidea

2. **À L'ÉCOLE DES PHILOSOPHES** (2018). Fernand Melgar. Suitza

Emakumeen ahalduntze prozesuak Indian

3. **BEHIND INDIA – UNA MIRADA DESDE SUS MOVIMIENTOS SOCIALES** (2018). Fernando Vera. Euskadi

“Berrorientazio” sexualerako terapiak

4. **LA (DES)EDUCACIÓN DE CAMERON POST** (*The Miseducation of Cameron Post*, 2018). Desiree Akhavan. AEB (**SOLASALDIA**)

Enpresen errentagarritasuna + Deslokalizazioa = Langabezia

5. **EN GUERRE** (2018). Stéphane Brizé. Frantzia (**SOLASALDIA**)

Apartheidaren aurkako borroka Hegoafrikan, ahalegin kolektibo bat

6. **EL ESTADO CONTRA MANDELA Y LOS OTROS** (*The State Against Mandela and the Others*, 2018). Nicolas Champeaux, Gilles Porte. Frantzia

Politika eta feminismoa

7. **THE FEMINIST – A SWEDISH INSPIRATION** (2018). Hampus Linder. Suedia (**SOLASALDIA**)

Kanbodiako genozidioa: hiru urte, zortzi hilabete eta hogeitasei eguneko izua

8. **FUNAN** (2018). Denis Do. Frantzia-Belgika-Luxenburgo

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Pederastia eta bere estalketa Elizan

9. **GRACIAS A DIOS** (*Grâce à Dieu*, 2019). François Ozon. Frantzia (**BUKAERA**)
(**LEHIAKETATIK KANPO**)

Sahara: erbestean jaiotako belaunaldiak

10. **HAMADA** (2018). Eloy Domínguez Serén. Suedia-Alemania-Norvegia

Indarkeria sexistaren aurkako sareak ehuntzen

11. **HILOS DE SORORIDAD** (2019). Eneko Olasagasti. Euskadi (**SOLASALDIA**)

Lan feminizatuak eta esplotazioa

12. **HOTEL EXPLOTACIÓN: LAS KELLYS** (2018). Georgina Cisquella. Espainia

Autoritarismoa eta populismoa Polonian

13. **IMPREZA – DAS FEST** (2017). Alexandra Wesolowski. Alemania

Balkanetako Gerraren zama astuna

14. **THE LOAD** (2018). Ognjen Glavonić. Serbia-Frantzia-Kroazia-Iran-Qatar

Boikota eta desobedientzia giza eskubideen alde

15. **¡NAE PASARAN!** (2018). Felipe Bustos Sierra. Erresuma Batua (Eskozia)-Chile

Herritarren sareak migratzaileak hartzeko

16. **PASEKO TXORIAK** (2019). Juanmi Gutiérrez. Euskadi (**SOLASALDIA**)

Lehenaldiaren zama

17. **SOINUJOLEAREN SEMEA** (2018). Fernando Bernués. Euskadi.

Palestina: erbestean eta okupazioa bizitzera behartutako herri bat

18. **THE TOWER** (2018). Mats Grorud. Norvegia-Frantzia-Suedia

Afrika: gure zabor elektronikoaren hilerria

19. **WELCOME TO SODOM** (2018). Florian Weigensamer, Christian Krönes. Austria
(**SOLASALDIA**)

SAIO BEREZIAK

DONOSTIAKO ESPETXEA

Giza Eskubideen Zinemaldiak mota honetako kultura-ekimenetatik baztertuta dauden kolektiboetara iristeko aurreikusita dituen jardueren artean, **Campeones** (2018) filma proiektatuko da, eta mahai-inguru bat egingo da ondoren, Donostiako Espetxean.



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagitzaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

TABAKALERA

1. **DEPTH TWO** (2016). Ognjen Glavonić. Serbia-Frantzia
2. **LES TOMBEAUX SANS NOMS** (2018). Rithy Panh. Frantzia-Kanbodia
3. **THE WALDHEIM WALTZ / WALDHEIMS WALZER** (2018). Ruth Beckermann. Austria
4. **UNAS PREGUNTAS** (2018). Kristina Konrad. Alemania-Uruguay

FILM LABURREN LEHIAKETA

1. **Ajo** (2018). More Raça. Kosovo
2. **Emarri** (2018). Ander Iriarte. Euskadi
3. **Eighth Continent** (2017). Yorgos Zois. Grezia
4. **Excess Will Save Us** (2018). Morgane Dziurla-Petit. Suedia-Frantzia
5. **Eyebrows / Ma tealash an el hageb** (2018). Tamer Ashry. Egipto
6. **Giovani italiani** (2018). Alessandro Panza. Italia
7. **Hanged / Halghaviz** (2019). Roqiye Tavakoli. Iran
8. **Historia magistra vitae** (2018). Tamara Erbe. Alemania-Kroazia
9. **Jauzi handia** (2019). María Elorza. Euskadi (**LEHIAKETATIK KANPO**)
10. **La Jupe d'Adam** (2018). Clément Tréhin-Lalanne. Frantzia
11. **Laatash** (2018). Elena Molina. Euskadi
12. **Labor** (2018). Cecilia Albertini. AEB-Italia
13. **Les Lèvres gercées** (2018). Kelsi Phung, Fabien Corre. Frantzia
14. **Nuestro canto a la guerra** (2018). Juanita Onzaga. Belgika-Kolonbia
15. **Mutterschaft** (2018). Flavio Rigamonti. Italia
16. **The Ostrich Politic** (2018). Mohamad Houhou. Frantzia
17. **Skin** (2018). Guy Nattiv. AEB
18. **Sunday Market: Tripoli** (2018). Yahya Mourad. Libano

KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA

Aurten, hainbat erakunde eta GK Eren eskutik (Garabide, Lumagorri edo Mugarik Gabe), zinemaldia Donostiako Kultur Etxeetara iritsiko da, eta honako doako proiektzio hauek eskainiko dira:

Egia K. E. / Laguntzailea: Garabide

MAI DA BAI (ETA EZETZIK EZ DAGO) (2018). Eider Ballina, Ane Baskaran, Imanol Eppherre. Euskadi

Okendo K. E. / Laguntzaileak: Lumagorri / Ehgam

BIDE ZUZENA, IBILBIDE OKERRAK (2018). Hala Bideo. Euskadi

Lugaritz K. E.

ZINK (2012). Segis Monsó Agorreta, Xabier Hernaiz Gomara. Euskadi

Tomasene K. E. / Laguntzailea: Amnistía Internacional

GRIETAS (2018). Xuban Intxausti. Espainia

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Aiete K. E. / Laguntzailea: Filmazpit

IDAZKETA TAILERRA (*L'Atelier*, 2017). Laurent Cantet. Frantzia

Intxaurrondo K. E.

Izur (Arruga) (2018). Estibaliz Urresola. Euskadi

Reunión con Tarana Karim (2019). Vanessa Aramburu Gisbert. Euskadi

ONGI ETORRI (2018). Fermin Aio. Euskadi

Loiola K. E. / Laguntzailea: Mugarik Gabe

CINE Y COMUNICACIÓN DE LOS PUEBLOS INDÍGENAS: UN DERECHO EN CONSTRUCCIÓN – CAPÍTULO 3. VOCES DEL ABYA YALA (2018). Beatriz Pérez Galán, Yolanda Prieto Ramos. Espainia

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN SARIA ANNEMARIE JACIR

Annemarie Jacir zinegile palestinarrek 16 pelikula inguru idatzi, zuzendu eta ekoiztu ditu bere ibilbidean zehar, bere sorlekuari estu lotutakoak beti. Betleemen jaio zen 1975ean; Saudi Arabian bizi izan zen eta ondoren Estatu Batuetan, eta bertan egin zituen bere ikasketak eta hasi zen lanean editore eta kamera gisa, baita zinemaren industriako beste lan batzuetan ere.

Zenbait urteren eta proiekturen ondoren, bere sorterrira itzuli zen eta 1997an Philistine Films sortu zuen beste batzuekin batera; ekoiztetxeak Palestinan eta Jordanian du egoitza, eta zinema arabiar independentea bultzatzea da bere xede, besteren artean, film hauekin: **Like Twenty Impossibles** (2003), aurreneko film labur arabiarra Canneseko sail ofizialean parte hartzen, Jacirrek zuzendua, edo berak ekoiztutako **Until When** (2004) dokumentala. 2003an Dreams of a Nation proiektuaren sortzaileetako bat izan zen eta Palestinako zinemaldi ibiltari handiena antolatu zuen Palestinan.

2008an lehenengo emakume palestinarra izan zen film luze bat zuzentzen: **Salt of This Sea / Milh Hadha al-Bahr**, Donostiako Zinemaldian Zinema Mugimenduan saria lortu zuena eta Cannesen ere proiektatu zena. Filmak Estatu Batuetan jaiotako emakume palestinar baten historia kontatzen du, bere sorlekura itzultzea erabakitzen duenarena.

2012an **When I Saw You / Lamma Shoftak** zuzendu zuen, Sei Egunetako Gerraren ondorengo egunetan girotua, milaka palestinarrek Jordaniara erbesteratu behar izan zutenean; filmak Asiako pelikula onenaren saria lortu zuen Berlineko Zinemaldian.

Aita-seme bat, aspalditik Erroman bizi direnak, Nazaretera itzuli dira ezkontza batera. Biak dira protagonistak orain arte bere azken pelikula den honetan: **The Wedding Invitation / Wajib** (2017), 36 sari jaso dituen nazioarteko zinemaldietan.

Tokiko talentu gazteei irakasteko eta haiek prestatzeko hartua duen konpromiso irmoarekin, etengabe ari da lanean bere ekoiztetxearen bitartez eskualdeko zinema bultzatzen. Klaseak eman ditu Columbian, Betleemen, Birzeit-eko Unibertsitatean eta errefuxiatuen esparruetan Palestinan, Libanon eta Jordanian.



Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

PROIEKZIOA + SOLASALDIA

Egunen batean Palestinara itzuli ahal izateko itxaropena

WHEN I SAW YOU / LAMMA SHOFTAK (2012). Annemarie Jacir. Palestina

SARIAK

IKUSLEEN SARIA FILM LUZE ONENARI

Ikusleek Sail Ofizialeko 18 film luzeen artean aukeratuko dute.

GAZTE EPAIMAHAIAREN SARIA FILM LABUR ONENARI

Epaimahai Gazte batek, 150 partaide inguruk osatutakoa, Film Labur Onenaren Saria ematen du urtero, 3.000 eurokoa.

AMNESTY INTERNATIONAL SARIA

Irabazlea Amnesty International erakundeko kideek eta ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalak osatutako epaimahai batek erabakiko du.

GAIK ETA SOLASALDIAK

Zinemaren munduan eta giza eskubideen arloan lan egiten duten adituak Donostian izango dira egunotan eta aurkezpen eta solasaldietan parte hartuko dute ikusleekin batera. Aztertuko diren gaien inguruko hausnarketa bultzatzeko zinemaldiak hainbat testu argitara emango ditu bai bere webgunean (www.zinemaetagizaeskubideak.eus) bai paperean ere. Proiektzio aretoen sarreran bertan banatuko dira testuok. Hauexek izango dira 17. edizioan jorratuko diren gaiak:

Temáticas con coloquio

- Indarkeria sexistaren aurkako sareak ehuntzen (**Hilos de sororidad**)
Eneko Olasagasti: filmaren zuzendaria
Isabel Otero: *Bortizkeria sexistaren aurkako Matzak*-en arduraduna
Vanina Vázquez: gidoilaria
Maria Permarker: Sticka För Fred
- “Berrorientazio” sexualerako terapiak (**La des(educación) de Cameron Post**)
Jordi Grisot: electroshock terapia baten pean “borondatez” jarri zena bere homosexualitatea “sendatzeko”
Jesús Estomba: Gehituko kidea eta Berdinu Zerbitzuko arduraduna Gipuzkoan eta LGTBI kolektiboari Informatu eta Laguntzeko inguruan
Ana Txurruka: Medeak kolektiboa, aktibista transfeminista
- *Enpresen errentagarritasuna + Deslokalizazioa = Langabezia (En guerre)*
Mikel Soto: Ortuellako General Electric enpresa-batzordeko idazkaria
Mari Carmen Gallastegi: Teoria Ekonomikoko katedraduna eta Ekonomia Publikorako Institutuko Ingurumen Ekonomiko Unitatearen zuzendaria (UPV/EHU)

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

- *Politika eta feminismoa (The Feminist)*
Lidia Falcón: abokatua, idazlea, kazetaria eta Espainiako Alderdi Feministaren sortzailea
Arantza Campos: Plazandreak, UPV/EHUren irakaslea eta kazetaria
- *Herritarren sareak migratzaileak hartzeko (Paseko txoriak)*
Amaia Oca: Irungo Harrera Sareko kidea
Ion Aranguren: Irungo Harrera Sareko boluntarioa
Elena Luquin: Gipuzkoako Gurutze Gorriko Gizarte Interbentzioko zuzendaria
Nahia Díaz de Corcuera: Gurutze Gorriko asiloaren, errefuxiatuen eta immigranteen programako arduradun autonomikoa
- *Afrika: gure zabor elektronikoaren hilerria (Welcome to Sodom)*
Lorea Flores: Greenpeace-ko mobilizazio koordinatzailea Euskadin eta Nafarroan
Pepe Larios: Equo Fundazioko presidentea
Sara Domínguez: ingeniari elektronikoa, produktuen diseinatzailea eta ekintzailea Setem eta Mugarik Gabeko Ingeniaritza elkarteetan

Jorratuko diren beste gaiak

- Emakumeen sexu-autodeterminazioarako eskubidea
- (Des)gaitasunak dituzten pertsonen hezkuntzarako eskubidea
- Emakumeen ahalduntze prozesuak Indian
- Apartheidaren aurkako borroka Hegoafrikan, ahalegin kolektibo bat
- Kanbodiako genozidioa: hiru urte, zortzi hilabete eta hogeitaz eguneko izua
- Pederastia eta bere estalketa Elizan
- Sahara: erbestean jaiotako belaunaldiak
- Lehenaldiaren zama
- Lan feminizatuak eta esplotazioa
- Autoritarismoa eta populismoa Polonian
- Balkanetako Gerraren zama astuna
- Boikota eta desobediencia giza eskubideen alde
- Palestina: erbestean eta okupazioa bizitzera behartutako herri bat

HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO SAIOAK

Donostiako eskoletako ikasleek goizeko saioetara joateko aukera izango dute. Aurreko edizioetan bezala, helburu hezitzaile eta didaktikoak jarraituz programatzen dira saiook, giza eskubide urraketak ezagutuz gain, haiekiko sentiberatasuna areago dezaten haur eta gaztetxoek. Edizio honetan **4.000 ikasle** inguru hurbilduko dira Victoria Eugenia Antzokira.

Filmetan agertzen diren baloreetan sakontzeko, proiektzioak **gida didaktikoekin** osatuko dira.

Zoritzarreen bizirauten ikasten

- **PLOEY – BAKARRIK HEGAN INOIZ EZ** (*Ploey – You Never Fly Alone*, 2018). Árni Ólafur Ásgeirsson. Islandia-Belgika

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

- Adiskidetasuna eta lankidetzeta, altxorrik preziatuena*
- **LEO DA VINCI: MONA LISA MISIOA** (*Leo Da Vinci: Missione Monna Lisa*, 2018). Sergio Manfio. Italia
 - *Nerabezaroaren puzzlea*
 - **AURORA** (*Jamais contente*, 2016). Émilie Deleuze. Frantzia

ERAKUSKETAK

Rohingya exodoa

apirilak 3 – maiatzak 30

Aiete K. E.

Antolatzailea: *Mugarik Gabeko Medikiak*

Kongoko emakumeak – Itxaropen bidea

Isabel Muñoz

martxoak 29 – maiatzak 4

Okendo K. E.

Artea eta giza eskubideak, haur eta gazteen XV. erakustaldia

apirilak 5-14

Zinemaldiaren Informazio Bulegoa (Victoria Eugenia Antzokia)

Antolatzailea: *Donostiako Giza Eskubideen arloa*

UN: People on the Move

martxoak 11 – apirilak 30

Udal Liburutegi Nagusia (Alderdi Eder)

Antolatzailea: *Eskura, Aieteko Giza Eskubideen Aldeko Pedagogia-Baliabideen Zentroa*

Azkeneko gizakia Lurraren gainean

Joan Alvaro

apirilak 2 – maiatzak 19

FNAC

JARDUERA GEHIGARRIAK

Harresitik abesten

Kontzertua Mendebaldeko Sahararen alde

apirilak 12 / 20:00

Antzoki Zaharra

Antolatzailea: *Club 44*

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Errealitate birtualaren eta giza eskubideen inguruko erakustaldia

apirilak 5-7

Zinemaldiaren Informazio Bulegoa (Victoria Eugenia Antzokia)

- **Asignatura Empatía**
- **The Day the World Changed**
- **iANIMAL**
- **Through My Eyes**
- **Home After War**
- **La historia de Aisha**
- **La huida del lago Chad**
- **Sense of Home**
- **My Africa**
- **Bloodless**
- **The Umbrella Movement – Four Years On**
- **Rainbow Warrior in Taiwan**
- **The Curse of Palm Oil**
- **You Are There: On the Road to Making Polio History**

Mahai ingurua + film laburrak

REACT

Errespetua eta berdintasuna: elkarrekin ekin eta komunikatzea

apirilak 9

Etorkizuna Eraikiz Gunea (Gipuzkoa plaza)

Antolatzailea: *SOS Arrazakeria*

MARMARA. Zalaparta bihurtzen diren zurrumurruak

Corinne Kumar

apirilak 10

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea (Aiete Jauregia)

Antolatzailea: *Calcuta Ondoan*